

HITZ ELKARTUEN OSAKETA ETA IDAZKERA

Aurkezpena

Teknikak eta bizimoduaren aldaketak direla bide goitik behera aldatu zaigun gizarte honetan, hizkuntzek ere erabateko eragina jaso izan dute. Euskarak, gure kasuan, izugarritzko ahalegina egin behar izan du eta egiten dihardu gizarte berriko beharrezaneiei aurre egiteko. Besterik beste, azken urteok arte inoiz erabilia izan ez den alor ugarietara, hala nola, irakaskuntza, komunikabide, administrazio eta abarretara egokitzeke.

Hizkuntza bakoitzak bere baliabideak izan ohi ditu halako aldakuntzei aurre egiteko. Euskarak ere bai. Hori dela eta, azken urte hauetan hainbat jorratu izan dira eta jorratzen dihardugu gure hizkuntzak egoera berriei aurre egiteko beharrezkoak dituen zenbait alor.

Euskarak, gainerako hizkuntza gehienek bezala, handi-handika esanda, bi bide nagusi izan ditu beharrezkoak berri horiei erantzuteko unean :

1) Beste inguruetakozko hizkuntzetatik maileguak hartzea. Baliabide hau euskarak antzina-antzinatik erabili izan duena dugu: hor ditugu, esaterako, latinetik hartutako *golde*, *pago*, *lege*, *errege*, *gerezi*,... eta beste hainbat eta hainbat hitz. Hor dugu,

baita ere, gure hizkuntzari halako emankortasun handia ekarri dion [-tu] atzizkia ere; gaur egun ezinbestekoa gertatu zaiguna: etxera+tu: *etxeratu*, zuri+tu: *zuritu*, gizon+tu: *gizondu*,... Halakoetan ere, jakina, ongi zehaztu beharko hartutako mailegu horiek nola jatorkiro erabili eta egokiro tartekatu mintzairakatean. Hainbat izan arren kanpoko inguruetako hizkuntzetatik euskarak hartu dituen hitzak bizirik iraun du, era berean bere baliabide-altxorrari eusten jakin duelako.

2) Bere jatorrizko sormen-altxorraz baliatuz erantzutea. Hau da, beharrizan berriei euskaraz berak hitzak sortzeko dituen ahalbideak erabiliz erantzutea. Honetan ere bi bide nagusi bereiz ditzakegu:

a) *Hitz-eratorketa*: hau da, lehendikako hitzei hizki batzu (batez ere atzizkiak) erantsiz lortzen dugun hitz berrien sorkuntza oparoa: **jakin + tza** = jakintza; **esku + kada** = eskukada; **lotsa + ti** = lotsati,... Honetan oso aberatsa dugu euskara, nahiz eta aurrizki/artizki alorrean urritasuna erakutsi. Baliabide hau dugu, behar bada, ezagunena eta euskal gramatiketan gehien sakondu izan dena. Liburu osoak ere eskaini zaizkoio.

b) *Hitz-elkarketa*: hitzak elkarren ondoan inolazko erlazio atzizkiarik gabe jarriz adiera berriak sortzean datzana. Bide hau antzina ere oso erabilia izan zen, batez ere toponimia alorrean: *elizondo, elexabide, etxegarai, urioste*,... edota hainbat hitzetan: *zeresan, gorabehera, harreman, eskubide, astakirten, lepazuri*,... Indar berria hartu du azken urte hauetan, gure hizkuntzak beharrizan berriei erantzun beharra izan duenean.

Euskaltzaindiak, hainbat urtetan zehar lanean aritu izan den LEF batzordearen bidez burutu berri du alor honen azterketa. Hartu ere egin ditu zenbait erabaki/gomendio interesgarri eta orri hauetan beraien laburpena eskaini nahi dizuet egunerik egunera euskaraz egokiago eta jatorrago idazteko bidea izan dezazuen. Berri zehatzagorik nahi duenak jo beza honako honetara: *Euskaltzaindiaren Gomendio eta Erabakiak (II)* Bilbo (1992); *Euskara*, 1992,1; 1992,2-separata)

I.- Irizpide nagusien laburpena:

Euskaltzaindiak, irizpide nagusiak eskaintzerakoan honako atalok ukitzen ditu:

1) *Hitz elkartuen erabilpen-eremua:*

- *Oso ugaria eta egokia dugu elkarketa: batzuetan erdal izan konplementazio askoren ordaina emateko: guraso elkarte, telefono zenbaki; besteetan, izena + adjektibo erreferentziala euskaratzeko bide ederra: ekonomi teoria (teoría económica/théorie économique).*

- *Bikoteak euskaraz emateko dvanda elkarteak ditugu egokienak: hijos/les enfants,... euskaratzeko: seme-alabak, errege-erreginak, aita-amak...(gaizki: erregeak, aitak, semeak,...)*

- *Elkartzen direnen arteko erlazioa iluna denean hobe erlazio atzizkia erabiltzea: merkatuaren bilakaera, elizbarrutiko museoa (ez: merkatu-bilakaera, elizbarruti-museoa).*

2) *Hitz-junturako borts-aldaketak: borts legeak.*

Lehen osagaiaren azken bokala galduz kontsonante aldaketak sortzen ziren: **begi, ardi, beso, etxe, arto, idi,... > bat-, art-, art-, besa-, etxa-, arta, it-...: betile, artizar, iteuli, artaburu, besamotz, etxalde,...** Horrelakoetan honako hau gomendatzen da:

- **Gaur egun azken bokalik ez galtzea:** *txistulari elkarte eta ez txistulal elkarte, kultur(a) astea eta ez: kultul astea.*

- **Azken aldian hedatu diren unibertsital, monetal, medikal, nekazal eta antzerakoak baztertzea.** *Unibertsitate-esparru, moneta-politika*

eta ez: *unibertsital esparrua, monetal politika.*

3) *Lehen osagaiaren amaierako >a< galdu ala ez.*

- Lehen osagai edo mugatzaileak (elkarketako 1. hitzak) bukaera >ia< duenean, >a< hori kenduta nahiz kendu gabe erabil daiteke, lehenetasuna kenduta erabiltzeari ematen zaiola: *biologi azterketa, diplomazi falta, filosofi fakultatea.*

- Debekatuta dago gainerako amaierak >a< galtzea, honako salbuespen hauetan izan ezik: *eliz(a), burdin(a), bizkuntz(a), kultur(a), natur(a), literatur(a)*; hauetan bietara erabili ahal izango da.

- Geroago esango denez, >a< galtzen den kasu guztietan banan-banan idatziko da elkarketa: *bizkuntz eskakizunak, teologi fakultatea.*

4) *Berrelkarketa*

a) *Atal biko sintagma izan obi da, normalean hitz-elkarteak: zuzen-zuzenean,...* baina inoizka sintagma luzeagoak ere ager daitezke. Halakoetan:

- beharizanik ez dagoenean ez egin elkarketa arrarorik: *euskal aldizkari-zuzendari-bilera, Mendibilko udal-kirol-patronatua,...* eta horrelakorik. Holakoan ordeztu: *euskal aldizkari(etako) zuzendarien bilera, Mendibilko udalaren kirol-patronatua,...*

- ez egin hitz-elkarketarik tartean adjektiborik sartzen bada: *hautagai-zerrenda* baina *hautagi berrien zerrenda.*

b) Berrelkarketa onargarria gertatzen da ondoko kasu hauetan:

- mugatzailea **euskal, erdal, frantes, giza** dutenean: *frantses lege-araudia, euskal kultur mintegia.*

- aposizioak direnean: *Ama Lurfilmea; Bilbo-Behobia autobidea.*

- mugatzialearen koordinazio-hedapenetan: *emakume- eta haur-taldea; Unbertsitate eta Ikerketa sailak.*

- **eguzki-lore** gisakoen alorreko **irizpen-, multzo-, zati- eta mota-** elkarreak: *perpaus subordinatu multzoa, zakur-biltzaile taldea.*

- **jarleku** moduko hitz elkartuak ere sarriro agertzen dira mugatzaile gisa: *deklinabide atzizkia, ikasliburu-saltzailea.*

II.- Banan-banako idaztarauen laburpena.

Gorago aipatu dugun bezala, irizpide nagusien laburpena egin ondoren, Euskaltzaindiak hartutako arau zehatzak bilduko ditugu, adibideei dagokienean, laburtu beharrak eraginda hemen gutxi batzu baino jasoten ez baditut ere. Hala ere sailik sail ulertzeko adina biltzen saiatuko naiz.

1) Bereiz idaztekoak

a)Aposizioak: *Bidasoa ibaia, Axularliburutegia; izeba Maria, maisu Juan, alkate jauna; D dokumentua, D eredua; Peru Abarka, Kepa Kirten; Jon Etxepe, Aitor Axpe.*

b)Izena + egin, eragin, eman eta hartu: *negar egin, barre eragin, su eman, min hartu. Sal.: hotsegin, hitzegin, onartu, hitzartu, jaunartu, lo(a)kartu.*

c)Bikoizketak: bien artean erlazioa tzizkirik dagoenean: *aurrez aurre, herriz berri, adarrik adar, buruen buru, menderen mende, kalerik kale, sasirik sasi.*

d)Partizipioa + berri: *esan berri, basi berri. Sal.: ezkonberri, etorberri, hasberri, sorberri, aldaberri, janzberri.*

e)Posposizioak: *mahai gainean, kable bidez, eskualde mailako, geltoki ondora. (Sal.: nazioarteko, jendaurreko, prentsaurreko,...*

f)Izena + falta, eske, bila: *bake bila, diru eske, lo falta.*

g)Erdal, euskal, giza, itsas+izena: *erdal gramatika, itsas garraioa, giza zientziak, euskal idazleak.*

h)1. osagaiak jatorrizko azken >a< galdu duenean: *kultur astea, teologi liburua, hizkuntz eskakizunak.*

2) Marrarekin idaztekoak:

a)gorri-gorri modukoak (1.osagaia deklinabide atzizkirik gabe): *adi-adi (egon), (egun) argi-argia, alfer-aferrik, gaur-gaurkoz, bete-betean, bihotz-bihotzetik, zin-zinez, ozta-ozta, dagoen—dagoenean (utzi), hasiera-hasieratik, gaur-gaurkoz, doi-doi, zabal-zabalik.*

b)apurka-apurka modukoak (bi osagaiak atzizki berbera): *emeki-emeki, launaka-launaka, aldian-aldian, tarteka-tarteka, ezerian-ezerian, polito-polito.*

c)seme-alaba, zuri-gorri modukoak: *txuri-uridin, zuri-gorri, argi-ilunluze-zabal, kili-kolo; sartu-irten, zer-nolako, atzera-aurrera, gazi-geza, laztan-musuka, hamar-hamaika, joan-etorri, sartu-urten, negar-zotinka, maisu-maistrak.*

d)barra-barra, plizti-plazta edo **tazehatz-mehatz** modukoak: *dinbilitanbala, zirti-zartatarteka-marteka, erran-merran, tirrika-tarraka, auzi-mauzi, nahas-mahas, handi-mandi,...*
Sal.: *esamensa, tirabira, zirriborro, zurrumurru..*

e)Ezkiio-Itsaso loduko leku izenak: *Gernika-Lumo, Etxarri-Aranatz. Itzulketa denean, ostera: Arrasate/Mondragon, Vitoria/Gasteiz,...*

Besterik dira itzulpenezko *Lizarra | Estella, Arrasate | Mondragón, Vitoria | Gasteiz,...*

3) Loturik idaztekoak

a) **aditz-erroa + izena**: *idazmakina, egongela, abiaburu, helmuga, salneurri, galdegai, geltoki, sorleku, pentsamolde, lebiakide, ikerlan.*

b) **aditz-erroa + izenondoa**: *nekaezin, uxagaitz, ulerterraz, isurbera, bateraezin, minbera, ...*

c) **Izena + aditza**: **odolustu** modukoak: *indargaldu, gaitzetsi, antzaldatu, biziberritu. Sal. Izena + egin, hartu, eragin, eman, bitzegin, hutsegin, ... izan ezik.*

d) **2.osagaia: -gin, -gile, -zain, -zale, -dun, -gabe** edota **-gintza, -za(i)ntza, [-te]** dutenak: *bargin, langile, mugazain, bertozale, bizardun, gaztagintza, liburuzaintza; lotsagabe, egurregite, etxegite.*

e) **2.osagaia: -aldi, -buru, -gizon, -(g)une, -(k)ide, -(k)ume, -orde** dutenak: *belaunaldi, sailburu, legegizon, argiune, haltokide, ize-norde.* Baita ere, orohar, **2. osagaia: -gai, alde-** denean: *abadegai, eskualde.*

f) **Lehen osagaia aurre-, azpi-, gain-** dutenak: *aurrekontu, azpiegitura, gainazal, aurreproiektu, azpimarra, gainbalio.*

g) **zenbatzailea + izena**: *biruadar, ehunzango, bostortz, adarbakar, begibakar, zelulabakar.*

4) Marrarekin/bereiz idaztekoak

a) **eguzki-lore** modukoak: *akordeoi soinu / akordeoi-soinu, batzorde atal / batzorde-atal, elebitasun formula / elebitasun-formula, lan hitzarmen / lan-hitzarmen, garapen-maila / garapen maila, ikastetxe-mota / ikastetxe mota, ...*

b) **elkarte sintektiko arruntak**:

* **egile-elkarteak**: *odol emaile/odol-emaile, abo-gozagarri/ abo gozagarri, euri-neurgailu/ euri neurgailu, erbi-ehiztari, erbi ehiztari.*

* **ekintza-elkarteak**: *adar-jotze / adar jotze, txosten pretaera / txosten-pretaera, lan-eskaintza / lan ezkaintza, zikiro-jate / zikiro jate.*

* **jardun-elkarteak**: *kontu kontari / kontu-kontari, ate joka / ate-joka, abo-zabalka / abo zabalka.*

Osagai biak letra larriz hasten direnean hobe da marrarik: *Bertolari Txapelketa.*

5) Marrarekin/loturik idaztekoak

Izena + adjektiboa: **sudur-luze** modukoak: *(zezen) adar motz / adarmotz; (agure) burusoil / burusoil; (mutiko) musugorri / musu-gorri.*

Oharrak:

1) Lehen eta behin argitasuna bilatu behar da. Adibidez, ez da berdin emakume osagilea / emakume-osagilea (emakumeen osagilea). Berrelkarketarik egiten bada, saiatu esaera nahasiak baztertzen, adibidez: Markinako udal baso zaindaria: horren orde, Markinako udaleko baso-zaindaria.

2) >a< amaieran berezkoa duten hitzen kasuan:

* >a< kentzea gomendatzen da >ia< bukatutako hitzetan: teologi fakultatea, Autonomi Elkartea, ortografi arauak.

* >a< ez da galduko gainerako kasuetan: eskola liburua, iraultza giroa,...Salbuespen bakarrak honakook: eliz(a), hizkuntz(a) burdin(a), kultur(a), natur(a) eta literatur(a): natur zientziak, literatur sariketa,...

3) [Sal.] laburdurak, salbuespenak esan nahi du.

Patxi Uribarren